



# ANAIAREN MARKA GAINDITUTA

Ramon Otegi anaiak 1990. urtean Gaztelutik Uluko aterpetxeraino jarritako marka haustea lortu zuen herenegun 6



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza

### Astearta 2008-11-18

VIURTEA 1.562.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Berastegin jende ugari bildu zen azoka ikustera; ekitaldi honekin eman diote amaiera Kultur Asteari. IDOIA LAHIDALGA

## AZOKEK ITXI DITUZTE KULTUR ASTEAK

**TOLOSALDEA** Pasa den igandean azoka jendetsuak egin zituzten Amezketan eta Berastegin 5-6

### Txalo zaparrada ugari Alurr dantza taldearen 'Sua' ikuskizunean

**TOLOSA** Leidor jendez bete zen herenegun; dantza taldeko kideak «oso pozik» geratu dira 2



Alurr dantza taldearen Sua emanaldiak jendetza bildu zuen Leidorren. NEKA

### Xabat Manzidor eta Naroa Arrieta izan dira azkarrenak XVIII. Krosean

**IKAZTEGIETA** Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan ziren herenegun eta horietatik 28 emakume 5



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



# Alurren lehen ikuskizun handiak txalo zaparrada ugari jaso ditu

**Kultura** » Dantza taldeko kideak «oso pozik» geratu dira emanaldiarekin; 'Sua' urtarriean aurkeztuko dute ziurrenik Ibarren.

**INIGO TERRADILLOS**

Hilabete askoko lanaren ondoren herenegun iritsi zitzairen Alurr dantza taldeko kideei *Sua* emanaldi berria jendaurrean erakusteko unea. Prestatzen duten lehendabiziko ikuskizun handia dela kontuan hartuta ikusmina ere horrela koazen, handia. Eskualdeko nahiz eskualdez kanpokojende ugari zegoen irrikaz Ibarako dantza taldeak prestaturiko lanaz gozatzeko, eta aspalditik sarreak agortu izana eta jende asko gabe geratu izana horren adibide da. Beraz, dantzariatzat eta ikuskizuna prestatzen aritu direnentzat presioa eta urduritasuna ez ziren nolana hikoak izango. Lasaitasuna eta poza sentitzeko moduan daude, ordea, Leidorren izan ziren ikusleen eskutik jaso zituzten txalo zaparradak entzun ostean.

Koreografia berritzaileak eta landuak ikusi ahal izan ziren, musika eta irudiez lagundurik. Gimnastika artistikoa eta garaikidea nahasten zuen dantzak sorturiko suak eman zion hasiera emanaldiari, eta tartean jauntxoan eta herriarren areko talkak eta amodioak ikusi ahal izan ziren, eta baita sorginak ere; azken hauek, gainera, hain ohikoa ez den egoera irudikatu zuten, euren arteko maitasun erlazioak, alegia. Amaiera, suak eman zion, zirkulua berriro ere itxiz.

## Filmetik taula gainera

Eneko Ariztaren Lagunak kultur elkarteak egiten ari den *Sua* filmean oinarrituriko emanaldia da. Bertan kontatzen dutena dantzarekin irudikatu nahi izan dute Alurreko kideek, eta dirudienek asmatu dute lana pantailatik taulara eramatean. Izan ere, herenegun Leidorren izan ziren kultur elkarteak ordezkariek, eta «oso gustura» geratu ziren ikusi zutenarekin. «Asko gustatu zaigu emanaldia, zoragarria iruditu zaigu», azaldu zuten.



Alurr dantza taldeko dantzariak *Sua* emanaldian, herenegun, Leidor aretoan. NEKA

## «Lortu dugu!»

Eli Nosellas Alurr dantza taldeko arduraduna «oso pozik» dago emanaldiarekin. Berak ez zuen ikuskizunaz gozatzeko aukera gehiegi izan, eszenatokiaren atzealdean izan baitzen dantzariekin. Baina saioa bukatu ostean asko izan ziren jaso zituen zorion mezuak: «Lortu dugu! Sua atera dugu! Leidor bete dugu eta jendea ikusteko gogoz geratu da», zioen emanaldiaren biharamunean oraindik ere bere poza nabaria zelarik.

Gustura dagoela dio oro har jendea asko gustatu zaiolako: «baina, benetan poza sentitzen dut dantzariengatik; atzo emanaldia amaitzean ilusioz beterik zeuden guztia ondo irten zelako, beraz, pozten naiz beraiengatik, lan handia egin baitute».

Dantzariak egindako «lan handia» eskertzeaz gain, Alurr dantza taldeko arduradunak inguruan laguntzen ibili diren guztiak eskertu nahi izan ditu, izan ere, «talde baten lana izan da, eta ez pertsonabaten. Berezik koreografiaren aritu diren Edu eta Katixa, antzerkia lantzen aritu den Kristina eta arroparen arduraduna izan den Ramonena lana aipatzeko izan da, euren babesasentitu baitugu, eta hori oso garrantzitsua da».

## Atzetik datozenentzat eredu

Alurr dantza taldeko dantzariak, eskarmentu handia dutenak eta maila batera iritsi direnak, izan ziren herenegun taula gainean ikusi ahal izan zirenak. Dantza eskolan, ordea, asko eta asko dira ikasten ari direnak, eta hauentzat «eragin

handia» izango duela *Sua*-k dio Nosellasek. «Lan handia dago atzean, baina, guztiak dira gai horraino iristeko, hori norberaren esku dago; Saiakera, lana, esfortzua eta sakrifizioa hartu behar dirakontuan».

## Aurrera begira

Bestalde, jende asko geratu da emanaldia ikusteko gogoz, sarrera guztiak agortuta baitzeuden. Hauek seguruenik urtarriean izango dute aukera Ibarren eskainiko baitute *Sua*-ren bigarren emanaldia. Eta ondoren, Iparraldera ere joango dira lana aurkeztera. «Ikuskizun berria aurkezteko asmoa dugu orain herri batetik bestera; gauza batzuk zuzendu eta beste batzuk gehitu ere egin beharko ditugu».

# Herritarren arteko harremanak sendotuz

**Gizartea** » Ibarra, Sahara, Ekuador eta Ukrainaren arteko futbol partidak izan ziren atzo; gaur, Sahararen egoerari buruz hitzaldia.

**I. TERRADILLOS**

Pasa den asteazkenean hasi zen Kultur Trukearen baitan, herenegun ekitaldi bereziak gozatzeko aukera izan zen, Ibarako Belabietako kiroldegian kirolak eta elkartasunak bat egin baitzuten.

Ekuador eta Saharar Errepubliko Demokratikoa (RASD) gertutik ezagutzea dute xede jardunaldiok, eta horretarako askotariko ekitaldiak izan ziren pasa den astean, eta aste honetan ere horrela izango da; herenegun futbolaren txanda izan zen, Ekuador, RASD, Ukraina eta Ibarra taldeen artean, eskualdeko herritarrekin, eta Ibarren kasuan, herriko neska-mutilez osatutako taldea izan zelarik.

Ekuador eta Ukrainaren arteko partida izan zen lehena, Ekuador izan zelarik irabazte; bigarren norgehiagoka Ibarra eta RASD talde-

en artekoa izan zen, eta Ibarra koeke irabazi zuten. Arratsaldean, irabazleen arteko partidak jokatu zituzten, eta azkenean, Ibarra izan zen garaile, Ekuador bigarren, RASD hirugarren eta Ukraina laugarren. Txelo Romeo Ibarra kateak bnatu zituen ekitaldiaren amaieran sariak.

## Harremanak sendotzen

Txapelketa berezi honetan parte hartu duten jokalariek asko dute ohitura igandero futboleko elkarrarekin aritzeko. Horretaz gain, pasa den urteko Adiskidetasunaren Txapelketan ere aritu ziren, esperientzia hori errepikatu nahi zuten, eta egoki ikusi zuten antolatzailerik Kultur Trukean sartzea. Emaizta «oso ona» izan da, «giro polita» izan baita nagusi.

## Sahararren egungo egoera ezagutzeko

Bestalde, Kultur Trukearen baitan, gaur Saharari buruzko hitzaldia izango da Benito Izagirre kultur etxean, 19:30ean. Fatma Mohamed Salem Euskal Autonomia Erkideko Fronte Polisarioaren or-



Herenegun jokatu zuten futbol txapelketaren une bat. IDOIA LAHALDAGA

dezkarria izango da hitzaldia emango duena.

Fatma Mohamed Salem azaldu bezala, «gaur egun sahararrek bizi duten egoeraren berri emango dute». Batetik Aljeriako Tindouf hiriarren ondoan dauden errefuxiatuen kanpalekuan nola bizi diren azalduko du; «han egoerak ezin du okerrera egin ezin delako are okerrago izan egoerak; gainera, denbora luzeegia daramate han itxa-

roten konponbide baten zain», dio. Halaber, lurralde okupatuan zein den egoera ere azalduko die gaurko hitzaldira joaten direnei. Bestalde, egun Marokoren eta Sahararen arteko elkarrizketak zertan diren ere aipatuko du. «Egoera blokeatuta dago une honetan, izan ere, bi lurraldeen artean bitartekari lanak egin behar dituen pertsona aldatu egin dute, eta Marokok ez du oniritzia eman oraindik».

## Larunbatean manifestazioa

Bestalde, larunbatean, Madrilen manifestazioa egingo zuten Sahararen aldeko elkarteek deituta, eta bertara joateko deia ere egin zuten Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideek. Guztira, 8.000 lagunek hartu zutela parte adierazi dute, eta eskualdetik 14 lagun inguru joan ziren; «Maroko errudun eta Espainia arduradun bezalako oihiak izan ziren nagusi».

# Inguruko lekale preziatuenaren omenezko festa bihar hasiko da



Babarrun Astearen baitan ohikoa den pintxo lehiaketa izango da etzi; argazkian iazko irabazleak. I. TERRADILLOS

**Aisia** » Babarrunaren Asteari ekingo diote bihar, 'Tolosako babarruna, orain eta gero' izenburupean mahai-ingurua izango da.

## ESTI-EZEIZA

Bihar hasiko da urteko jai gastronomiko handiena, Babarrun Astea. Astea amaitu arte, lekale preziatu hau izango da protagonista.

Ekitaldiei hasiera emateko, *Tolosako babarruna, orain eta gero* izenburupean, mahai-ingurua izango 19:00etan, Kultur Etxean. Hizketaldian hauek hartuko dute parte: Joxe Antonio Garmendia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lardare Alorreko zuzendaria; Jorge

Hernandez, Slow Food Espainakoa; Roberto Ruiz, Tolosako Fronton jatetxekoa; Mario Cordero, Leongo Bañezako babarrunaren zuzendari tekniko eta Xabier Goikoetxea, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen elkarteakoa. Saio irekia izango da, eta edonor joan daiteke ikustera, dohainik.

Hurrengo egunean, ostegunean, babarrunaren inguruko topaketa egingo da Donostian, Londres hotelean. Honez gain, etzi, pintxo lehiaketa egingo dute Zerkausion. 17:00etan hasiko da eta ostalaritzako establezimendu ezberdinek hartuko dute parte. Norgehiagoka honetan, pintxoaren osagai nagusia Tolosako babarruna izango da. Epaimahaiko kideek aurkezteko modua, itxura eta zaporea baloratu

tuko dute. Iaz Dickens's tabernako sukaldari den Ainara Eguren izan zen garailea. Pintxo Zerkausion bertan sukaldatu beharko dute.

## Babarrunaren aitzakian, ekintza ezberdinak

Babarrun Astearekin lotuta, leka-lekarekin zerikusirik ez duten ekintzak ere izango dira herrian. Lehendabizi, hilaren 21ean abiatuta, Liburu Azoka izango da San Franzisko pasealekuan. Ekimen hau Liburuaren Ganbarak antolatzen du. Toki berean, hilaren 21etik 23ra, Naparlur artisau taldearen 20 postu egongo dira jarrita.

Artisautzako erakusketa honetan ikusi eta erosi ahal izango dira beirazko artisau-lanak, larruzkoak, zeramikak... Horiez gain, kos-

metiko ekologikoak merkaturatuko dira, baita Nafarroako artisautzako elikagaien elkarteak produktuak ere.

## Ekimen berritzaileak tartean

Urteroko ekitaldi batzuek errepikatuko badira ere, berrikuntzak ere izango dira aurtengo Babarrun Astean. Alde batetik, hilaren 21ean, *Slow food* afari irekia izango da 50 lagunentzat, Fronton jatetxean. Menua izen horrekin katalogatutako produktuen hainbat interpretazioekin osatuko da. Hau da, bertako elikagaiak, baina beraien ezaugarri, kalitate eta ekoizpen eskala txikiagatik oso bereziak direnak.

Bestalde, larunbatean, Tolosalde Tour-ek bisitaldi gidatuak eskainiko ditu. Bisita horiek babarrunarekin zerikusia duten herrietako lekuetatik igaroko dira. Hala, lehendabiziko geraldia Tolosako Parke Arkeologikoko babarrun baratzean egingo da. Han, Xabier Goikoetxea, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Elkarteak kideak azalduko ditu Tolosako babarrun gorriaren ezaugarri bereziak eta ekoizpen moduak. Bigarren geraldia, hiriko ohiko azoka izango da. Hor, baratzeatik ekarri berria den babarruna ikusi ahal izango dute.

Goiz horretan bertan, Triangulo plazan egingo da ohiko den babarrunaren azoka. Toki berean, 12:00etan Babarrunaren kofradia-aren eskutik, Tolosako babarruna dastatzeko aukera izango izango da. Izan ere, 2.000 anoa banatuko dituzte bertaraten direnen artean.

## Laburrak

### Kanpo desfibrilatzailea erabiltzen ikasteko aukera

**GIZARTEA** » Abenduaren 1ean, eta DYA Gipuzkoak antolatuta, DEAKo (Kanpoko Desfibrilatzaile Automatikoak) ekipoen erabilerako ikastaroa hasiko da. Bertan edonork har dezake parte. Ikastaroa bi egunetako da, abenduaren 2ra artekoa. Saioak 18:00etatik 22:00etara izango dira. Ikastaroa, DY Akoa Ordezkaritzan, Larramendiko 7ko zenbakian izango da.

### Milagrosako birjinaren kaperako mezen ordutegia

**GIZARTEA** » Milagrosaren bederatzirenean, lurreamendi egoitzako Mezen ordutegia desberdina izango da. Honenbestez, bihurtik hilaren 27ra bitartean, Milagrosa birjinaren kaperan, goizetan, 09:00etan izango dira jaiegunetan, eta 08:00etan, astegunetan. Arratsaldetan berriz, 16:30ean. Bestalde, Mezaren aurretik, erro-sarioa errezatuko da.

### Babarrun jatea antolatu du Oargik, hilaren 30erako

**GIZARTEA** » Oargik babarrun jatea antolatu du hilaren 30erako. Hara joan nahi duenak elkarte jarrita dauden zerrendetan eman dezake izena. Bestalde, egun horretan bertan aurkeztuko dute ere, *Oargi marxa* izeneko grabazioa.

### Titirijai 08rako abono eta sarrerak salgai, bihurtik

**KULTURA** » Hilaren 29an hasiko da Titirijai 08. Txotxongilo emanaldiak ikustera joateko abono eta sarrerak bihar jarriko dira salgai. Hauek, Tolosako Ekinbide Etxearen egoitzan eskura daitezke orainoz.



## Larrialdietarako zerbitzuak ikusgai

**GIZARTEA** » Emergentsia sanitarioetan teknikoak diren elkarte profesionalak formazio ikastaro bat izan zuten larunbatean, Triangulo plazan. Bertan, lehen sorospenen inguruko azalpenak eman zizkieten inguruko. Honez gain, gaur egun duten materiala, garraioak... nola hornituta dauden ikusteko aukerak izan zen. E. EZEIZA



## Minbizia dutenei laguntzeko, antzerkia

**KULTURA** » Minbiziaren Aurkako Elkarteak antolatuta, Algara antzerki taldearen *El hombre de rojo* antzezlanak izan zen ikusgai asteberuan, Leidorren. Jende ugari hurbildu zen 60. hamarkadako *El hombre tranquilo* izeneko umorezko lanaren egokitzapena ikustera. Bertan bildutako dirua, taldea antolatzailearentzat bideratuko dute. NEKA



## Flemingo tasatuen zozketa, egina

**VILLABONA** • Herritar ugari joan ziren atzo udaletxera, Flemingo etxebizitza tasatuen zozketaren berri izatera. Zozketako zenbakiak ateratzeko herritar baten kolaborazioa eskatu zuten. Guztira 116 eskatzaile daude eta guztien zenbakiak banan-banan atera zituzten. Lehenengo hamarretatik batenbatek ez badu etxebizitza hartzen zerrendan hurrengoa dagoenari emango zaio aukera. i.e.

## Laburrak

### Endika Abrileko finala berriz atzeratu dute

**VILLABONA** • Herenegun erreboteko Endika Abril txapelketaren finala jokatzekoa zen Villabonako Behar-Zana eta Donibane Lohizuneko Luzaz Gazte taldeen artean. Oartzunen jokatu behar zuten, baina euriarengatik ez zen posible izan eta berriro ere atzeratu egin da. Ziurrenez asteburu honetan izango da, baina oraindik ez da erabaki.

### Bigarren Hezkuntzako titulua ateratzeko aukera

**TOLOSA** • Bigarren Hezkuntzako gradutau titulua lortzeko proba libreak egingo dira abenduaren 11n, Tolosako EPAn. Azterketara aurkeztu behar duenak izena emateko aukera du hilaren 21a arte, Tolosako EPAn bertan. Izena eman nahi duenak EAEn bizi izatea, azterketako egunean 18 urte beteta izatea eta DBHn matrikularik ez izatea bete beharko du.

## Alkizan amaitu dira eta Amasan asteburuari begira

**Jaiak** » Alkizako bazkari herrikoian jende ugari bildu zen; Amasan giro ederra jarri zuten herri kiroletan parte hartu zutenek.

### ERREDAKZIOA

San Martin jaiak bukatu dira Alkizan eta Amasan jarraipena izango dute datorren asteburuan. Eguraldiak ez zuen asko lagundu pasatu berri den asteburuan eta, esaterako, Alkizanez zuten toka txapelketaburutu.

Hori bai, jende ugari bildu zen Alkizan egindako herri bazkarian, guztira 139 elkartu ziren. Herenegun ere izan zen Gorpil Txapelketa eta bertan sei lagun aritu ziren

bakarrik, eguraldiak ez baitzuen asko animatzen.

Bien bitartean, Amasan bi txapelketa izan zituzten jokoan herenegun. Amasarrek bakarrik parte hartzen zuten ardi-zakur lehiaketan Aitor Zuriarrainek irabazi zuen, Lagun zakurrarekin. Bigarren Mikel Arretxe izan zen Argi zakurrarekin eta hirugarren Jokin Etxeberrria Txiki zakurrarekin.

Arratsaldean amasaren arteko herri kirol lehiaketa egin zuten. Bi talde osatu ziren eta lokotx biltzen, ingudearekin, txingak, karretila, zaku lasterketan, trontzan eta korrikari. Giro ederra jarri zuten eta frontoira jende dexente joan zen. Asteburu honetan, besteak beste, ume kroa eta XVI. Mendiatioia izango dira.



## Autodeterminazioaren alde

**ANOETA** • Euskal Herriaren irrintzia: autodeterminazioaren aldeko ekimenaren baitan informazioa banatzen aritu ziren Anoetan asteburuan. Megafoniarekin ere herrian zehar informazioa ematen jardun zuten. HITZA

## Ekin diote Kultur Asteari

**Aduna** » Kultur aretoaren berrikuntzak inauguratu zituzten herenegun; gaurkoan Igerabidetarrek ipuin kontaketa.

### ERREDAKZIOA

Adunako Kultur Asteari hasiera eman zioten herenegun arratsaldean, kultur aretoaren berrikuntzak inauguratuz. *Eutsi!* filma ikusi zuten eta bertara herritar asko joan ziren, gehienbat umeak. Filma bukatu ondoren, meriendatxo batez gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenak. Bien bitartean haur batzuk teletibistari probetxua atera nahi izan zioten.

Bestalde, atzo kirolari buruzko mahai-inguru interesgarria egin



Kultur aretoan filma ikusi eta gero merienda egin zuten. HITZA

zuten kultur aretoan eta gaurkoan ipuin irakurketa antolatu dute. Juan Kruz eta Oihane Igerabide aita-alabak ariko dira *Grezia zaharreko istorioak* kontakten. Juan

Kruzek istorioak irakurtzen dituen bitartean, Oihanek arparen musikarekin girotzen du saioa. Helduentzako emanaldia da eta 20:00etan hasiko da.



## Ipuinak kontatzen, eta ikasten

**TOLOSA** • Ipuinak kontatzea erraza dela dirudi, baina ez da horrela. Haurren arreta erakartzea zaila da, publiko zorrotza da hauena. Baina atzokan erraz lortu zuen Miriam Mendoza ipuin kontalariak. Errota Haur Liburutegiko aretoa txiki geratu zen. Haur nahiz guraso ugari bildu baitziren saioa ikusteko, eta aldi berean, hortik ikasteko. E. EZIZIA



# Zirimiriarekin, II. Azoka Berezia plazan eta frontoian izan dira

**Amezketak** » Abereak plazan gelditu ziren eta beste postuak babesean jarri zituzten; guztira 42 postu erakargarri izan dira.

## NEREA URBIZU

Aurten, bigarren urtez Amezketan Azoka Berezia egin dute. Herenegungo giroa «polita eta ona» izan dela adierazi du Xatur Zabala zinegotziak. «Eguraldiak ez zuen gehiegilagundu. Azkenean, abereak plazan gelditu ziren eta barazki eta eskulan postuak Larrunarri pilotalekuan jarri genituen». Jende gehiena eguerdi partean bildu zen, 12:00ak aldera, alegia.

Guztira 42 postu izan ziren: barazkiak, abere asko («aurten iaz izan ez genituen ahuntzak eta ardiak izan ditugu»), txerriak, zaldi

eta behorrak, eskulanak, gozokiak, egur taila... izan zituzten eta postu guztiak herritarrenak izan ziren. Salmenta aldetik, Zabala zinegotziak «jendeak asko» saldu zuela adierazi du. Esaterako, «DBHkoek egindako pastel eta pintxoak salduta zituzten eguerdirako. Askosaldu zuten». Ez omen dakrisianabaritu Amezketan.

## Irina ez baina taloak bai

«Eskulan oso politak ikusi genituen eta barazkiak ere ederrak zeuden». Aurten ez dagauzaberrik izan, orduan «atentzioa deitu digunik ez da egon: joan den urtean dena berria zen guretzat... Hala ere eta beraz, aurten ere dena izan da polita eta berezia». Errota eramatekoak ziren irina nola egiten den ikusteko, baina azkenean ez zen posible izan bertan irina egitea, «piezaren bat hautsita baitze-



Aurten ere sagardoa egiten egon dira; iaz eguraldi hobea izan zuten. HITZA

goen, baina taloak jateko arazorik ez zen izan. Are gehiago, jende ilarraluzek sortu ziren taloak erosteko».

Errotaren orde, errotak dituen atalak ikusteko aukera izan zen eta «jendeak ezagutzen ez zituen atalak bazituela ikusi genuen».

Buruntzuntzin elkartekoek mendiko materiala zuten salgai, eta haiek ere «pozik» agertu ziren saldatuakorekin.

## Gaur, balantzea egiteko bilera

Azoka Amezketan, beraz, datorren urtean berriz egiteko prest agertu dira. «Asmo hori dugu behintzat, eta data ere mantenduko dugulakoan gaude, San Martin egunaren hurrengo asteburuan». Azoka izan da Amezketako Kultur Hamabostaldiari bukaera eman dion ekitaldia. Aste honetan, berriz, bilera izango dute, Kultur Hamabostaldiaren balantzea egiteko asmoz. Bilera hau gaur 20:30ean izango da, balioanitzeko gelan, eta beti bezala irekia izango da.

Bileran, Kultur Hamabostaldiaz hitz egiteaz gain, honako gaiak jorratuko dituzte: Euskara Landu (irakurketa taldea: ikasi, alfabetatu), kultura arloko laguntzen 2. zatiren azalpena: Ugarteko errepi-deko kokkak, kirol batzordea osatu, eta zaborren mankomunitateko informazioa.

# Inoiz baino parte-hartzaile gehiago Krosean

**Ikaztegiak** » 223 korrikalarik egin zuten XVIII. Herri Krosa; emakumeen parte-hartzea ere handia izan da (28).

## N. URBIZU

Inoiz baino parte-hartzaile gehiago jaso zituen Ikaztegiak herenegungo XVIII. Krosak. 223 korrikalarik bukatu zuten 10 kilometroko proba. Xabat Manzisidor eta Naroa Arrieta izan ziren Senior Mailan azkarrenak. Aurretik 40 haurrek burutu zuten kilometro bateko proba eta honekin ere, «pozik» azaldu dira Herrigintza elkartekoak, helburua parte-hartzea sustatzea baitzen.

Giroarekin ere «pozik» daude antolatzaileak: «Korrika egiteko giro oso ona zegoen, zirimiria baitzegoen eta atsegina da korrika egiteko. Ez zuten hain giro ona izango ikusleek, baina tira».

## Ondoren, bazkaria

Aipatzekoa da ere aurtengo edizioan inoiz baino emakume gehiagok hartu dutela parte, zehazki, 28. Lehenengo herriko emakume Eneritz Maiz izan zen (53 minutu eta 23 segundo) eta beteroan mailako Ina Agirre ikaztegiatarrak 20 segundo beranduago igaro zuten helmuga.



Aurtengo Krosean saria jaso duten korrikalariak. HITZA

Aurtengo bitxikeria kontatu dute Herrigintza elkartekoek: sailkapenean hainbat korrikalari izenik gabe agertzen dira. «Hauek berandu iritsi ziren izena ematera eta korrika egiten utzi zitzaizten, baina

ez zitzaizten dortsalik eman». Guztira 22 korrikalari izan ziren dortsalik gabe aurtengo proba egin zutenak.

Ondoren, Herrigintza elkartekoek bazkaria izan zen. Krosa

## » SAILKAPENA

### Seniorrak

- 1. Xabat Manzisidor. 32'32, Azpeitia.
- 2. Miguel Angel Encina. 32'36, Legazpi.
- 3. Jose Javier Cuadrado. 32'42, Zaldibia (orain arteko markarik onena dauka, 31'43).
- 1. Naroa Arrieta. 40'21, Lazkao.
- 2. Aitziber Ibarbia. 41'11, Zizurkil.

### ■ 3. Maider Korta. 42'13, Azpeitia.

### Beteranoak

- Idoia Aranguren (1.). 45'28, Antzuola.
- David Markaida (1.). 33'10, Meñaka.

### Lehenengo herritarrak

- Eneritz Maiz. 53'23.
- Joxe Mari Garmendia. 39'11 (beteranoa).

Ikaztegiak Udzak kulturalean baitango izan da ere, baina ez da honekin bukatu, ostiralean, esaterako, Ikaztegiak Kantuz ekitaldia baitago. 21:30ean izango da eta

hainbat abeslari ariko dirakantuan herriko ostatuan, tarteen herritar bat (Clara Urteaga). Larunbatean, berriz, gaztainak eta talo-jatea izango dira 19:00etatik aurrera.

## PANPINAK

**DVDa berria  
etxeko txikiak  
jolasteko**

DVDa (posterra opari)  
**18€**

**Panpina bakoitza  
(txapa opari)  
20€**

Egin eskaria amaitsu baino lehen  
902-82 02 01 edo [harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)  
adierazi harpidetu kodea

## Ehun lagun inguru bildu da Hauspibarraren bazkarian

**Ibarra** » Uste baino jende gutxiago gerturatu zen babarrun jaterra, baina giro «polita» izan zen, hala ere, antolatzaileen hitzetan.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Hauspibarra Kultur Elkartek pasa berri den igande honetarako antolatutako txerriaren eta babarrunaren inguruko festan ehun bat lagun bildu zen babarrun jaterra. Antolatzaileek esandakoaren arabera, «espero genuena baino jende pixkat bat gutxiago» ger-

turatu zen herrira «eguraldi kaxkarrarengatik seguruenen, baina gustura gaude, hala ere, izandako erantzunarekin».

Udaletxearen ondoan jarritako karpan izan zen Hauspibarrako kideek egindako babarrunen jatea eta bertan «hotza eta euria» bazegoen ere, giro oso ona izan zutela esan dute antolatzaileek.

Izan ere, eguna bi zatitan banatu zuten Hauspibarrakoek; alde batetik, goizean, 12:00etan, San Bartolome plazaren inguruan antolatutako txerriki desberdinen erakusketa eta dastatzea, eta aipatu babarrun jatea, bestetik.



Igandean San Bartolome plazan txerriaren erakusketa egon zen alde batetik, eta babarrun jatea, bestetik. IDOIA LAHIDALGA

## Otegi anaiaren marka hobetzea lortu du

### ERREDAKZIOA

Ramon Otegi lortu zuen igandean anaiak, Luis Marik, 1990. urtean Gazteluko udal txetik Uliko atepexerako bidea korrika eginda lortutako marka hobetzea, 43 minutu eta 35 segundotakoa. Igoeran 21 minutu eta 52 segundo eman zituen eta orotara 39 minutu eta 23 segundoko marka eskuratu zuen.

Ramon Otegi «gustura» geratu da egindako lanarekin, nahiz eta

«uste dut anaiak baino gusturago geratu dela». Aste «kaxkarrak» pasa zuen Otegi eta ondorioz ezin izan zuen nahi bezala entrenatu. «Lehen bost metroak gogorak izan ziren, baina gero, lauean, erreku paratu nuen», argitu du. Otegi ikus-tera gerturatu zen jende guztiari eskerrak eman nahi izan dizkie eta «bereziki» anaiari; «berarengatik hasi nintzen honetan eta gehien jarraitzen nauena da».



Aldapako lehen bost metroak izan ziren gogorrenak Otegiarentzat. I. LAHIDALGA

## Frontoian egindako Azokarekin amaitu da Kultur Astea

**Berastegi** » Jende asko gerturatu zen igandean herriko frontoira; Gazta eta Ardi lehiaketak izan ziren, besteak beste.

### ERREDAKZIOA

Berastegiko Kultur Astearen bul-tzatzaileak gustura daude antolatutako ekintzek izan duten jarraitzaileekin. Azken ekintzara, gainera, pasa den igandekoa, jende asko gerturatu zen.

X. Azoka izan zen goizean zehar eta tartean I. Ardi Txapelketa eta Gazta Lehiaketa ere izan zituzten. II. Animalia aErakusketa ere egin zuten. Gazta Lehiaketan 18 pertsonak hartu zuten parte eta orokorrean «oso kalitate oneko gaztak» aurkeztu zituzten, oso «nota altukoak». Azkenean, Maria Jesus Labaienek irabazi zuen lehen saria.

Ardi Txapelketan, aldiz, 10 ar-



Epaimahaikideen ustez maila altua izan zen Gazta Lehiaketan. IDOIA LAHIDALGA

taldek hartu zuten parte, eta hiru sari banatu zituzten: Berastegiko Ardi Onenaren saria Jesus Mari Lizartzak irabazi zuen, Ahari Onenarena Jose Luis Zuloagak eta BILDots Onenarena Ramon Saizarrek.

### Animalien erakusketa

Bestalde, animalien erakusketa ere egin zuten frontoian kanpian eta bertan Berastegiko untxiak, euskal oiloak, atak eta oilo bereziak

ikusitako izan ziren, besteak beste. Postuei dagokionez, 14 jarri zituzten eta bertan beste bi sari ere banatu zituzten: barazkiak saltzen zituztenen artean postuak apaintzeko egindako lana hartu zuten kontutan eta Luis Seizarrek irabazi zuen. Eskulanak (mermeladak, tartak...) zituzten postuetan berriz, eskolako seigarren mailako umeek irabazi zuten saria horrekin ikasbidaia ordaindu ahal izateko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Eric Diez eta Iker Mugerza binakako partidan, saka ateratzen. HITZA

## Usabal MT- Tolosa taldeak ligako partida galdu du (4-2)

**Mahai tenisa** » Asteburu honetan, igandean, Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute Anoetako kiroldegian.

### ERREDAKZIOA

Bigarren Mailan jokatzen duen Usabal MT- Tolosak 4 eta 2 galdu zuen iragan larunbatean Krafft Atletico Lasarteren aurka.

Asteburu honetan ez da liga jardunaldirik egongo, Gipuzkoako txapelketa jokatuko baitira Anoetako Abraham Olano kiroldegian. Igandean jokatuko den txapelketa Villabonako CD Olaederra taldeak antolatuko du.

### Partiden nondik norakoak

Usabal MT- Tolosako taldekiek gogor saiatu arren amore eman behar izan zuten Krafft Atletico Lasarteren aurka. Iker Mugerza 3 eta 2 galdu zuen lehen partida. Ondorioz, tolosarrak 0-1 hasi ziren galduten. Emiliano Antonek 3-0 irabazi zuen eta markagailua 1-1 berdindu zuen. Eric Diezek ondorengo partida 3 eta 2 galdu zuen. Bikotea, markagailu orokorra berdintzeko aukera zuten Iker Mugerzak eta Eric Diezek, baina arerioak lortu zuen garaipena, ondorioz, 1-3 aurreratu ziren. Iker Mugerzak banaka jokatu zuen bigarren partida irabazi arren, Eric Diezek azken partida galdu egin zuen. Amaieran 2-4 nagusitu ziren lasartearrak.

## Leitzako pilotariak lortutako emaitzak

### ERREDAKZIOA

Aurrera Pilota Eskolako ikasleak Nafar Jokoetan, Guillermo Mazo Txapelketan eta Egiako, Burlatako eta Lizarrako Txapelketan aritu dira asteburuan.

### Nafar Jokoak

Partida guztiak iragan larunbatean jokatuko zituzten pilotari gazteek. Amazabalen batzuk eta besteak Uharte Arakilen, Lizarran, Burlatan, Iruñean eta Elizondon. Ondorengo emaitzak erdietsi zituzten:

Aimar Gilek eta Mikel Erasok 18-7 galdu zuten. Ander Gartziaarena-Markel Barriolak 18-6 irabazi zuten, Iñigo Mitxaus-Ibai Barberen bikoteak bezala. Onsalo-Erasok 22-11 galdu zuten euren partida. Zubiria-Galartzak 18-9 irabazi zuten eta Igartua-Saralegik 18-13. 22-3 galdu zutenak, Igartua eta Hernandorena izan ziren. Ander Alduntzin-Benat Altelai 18-4 nagusitu ziren. Sagastibeltza Lasarte-Anartz Olano bikoteak 18-3 irabazi zuten. Joseba Eskudero eta Illarregi galtzaile irten ziren 18-8, Ander Eskudero eta Lezea bezala, hauek 18-7 gelditu ziren. Aldaregia-Jaunarenak 22-0 galdu zuten.

Joseba Eskudero eta Illarregi galtzaile irten ziren 18-8, Ander Eskudero eta Lezea bezala, hauek 18-7 gelditu ziren. Aldaregia-Jaunarenak 22-0 galdu zuten.

### Beste txapelketak

Lekunberriko Guillermo Mazo Txapelketan Jaunarenak 18-8 irabazi zuen Sotoren aurka lau t'erdian. Egiako Txapelketan, Apezetxea-Zubirik 22-18 galdu zuten Jaunarena-Albisuren aurka. Burlatako Txapelketan, Pikabea-Erreak 8-22 galdu zuten Maestresalas-Iriarteren aurka.

Lizarrako Txapelketan, lau t'erdian, ondorengo emaitzak eman ziren: Sagastibeltza Eguesek 17-18 galdu zuten Arbizuren aurka. Sagastibeltza Lasartek 18-4 irabazi zion Olarrari. Dariok 18-2 garaitu zuten Gartziaarena. Markel Barriolak 18-2 irabazi zuten Azkonaren aurka. Oier Igartuak 18-5 garaitu zuten Murua eta Hernandorena 18-14 Juango.



Oihana Etxenike. HITZA

## Gipuzkoako kadeteen Xake Txapelketa eta Hirugarren Mailakoa

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Kadeteen Mailako Txapelketa amaitu zen herenegun. Erreterian jokatuko zen eta bertan aritu zen Tolosako Xake Elkarteko Oihana Etxenike anoetarra. Txapelketa seigarren postuan amaitu zuen, baina sailkapeneko lehen neska izanik, Gipuzkoako nesken saria eraman zuen. Horri esker, datorren urtean jokatuko den Euskadiko Txapelketarako txartela lortu zuen.

Bestalde, Tolosan jokatzen ari den Gipuzkoako Hirugarren Mailako Txapelketaren beste txanda bat ere jokatuko zen. Txanda horren ondoren Villabonako Miguel Hernandezek jarraitzen du lehen postuan baina orain puntu erdira bakarrik ditu hurrengoak: Jokin Mendia tolosarra, Joxe Mujika ibarratarra eta Aitor Alkorta bilbonatarra. Datorren larunbatean jokatuko da azken txanda eta lau horietako bat izango da irabazlea.

## Laburrak

### Bide Bide Ibiza talde tolosarrak 99-67 galdu du

**SASKIBALOA** » Tolosarrak Lezerc derraren etxean 32 puntuz galdu zuten ligako azken neurketa pasa den asteburuan. Partida galdu ostean, Bide Bide Ibiza Saikapen Nagusian laugarren postuan aurkitzen da, bost garaipen eta bi porrotekin.

### Tolosak 3-0 irabazi dio Amaikak Bat taldeari

**FUTBOLA** » Tolosak 3-0 irabazi zion asteburuan Amaikak Bat taldeari. Etxean jokatuko zuten partida urdinek eta Urtzi, Blanco eta Colombo izan ziren taldeko tolosarreko hiru goleatzaileak.

## II. Mailako finalean Rekondo eta Otaegi

**Aizkora** » Leitzarrak eta zizurkildarrak Euskal Herriko II. Mailako kanporaketa 4. eta 6. postuan amaitu zuten.

Rekondok laugarren amaitu zuen, Lasar irabazlearengandik 1:16 minututara. Otaegik seigarren amaitu zuen, irabazlearengandik 112 segundotara.

### » SEI SAILKATUAK

### ERREDAKZIOA

II. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatuko zen herenegun Errezilen. Bertan hamaika aizkolarari aritu ziren lanean. Hauetako lehen seirek finalerako txartela lortu zuten. Jon Rekondo leitzarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra finalean egongo dira.

### II. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa

1. Jexumari Lasa	13:38
2. Jose Angel Zubiaga	14:03
3. Fausto Mugerza	14:48
4. Jon Rekondo	15:03
5. Luisdari Belarra	15:53
6. Joseba Otaegi	15:30

## Laskorainek 5-5 berdindu du etxean 0-5 galtzen joan ondoren

### ERREDAKZIOA

Derbi harrigarria ikusi ahal izan zen pasa den larunbatean Usabalen. Osagaiak primerakoa edo labeldunak ziren: egun Nazional B Mailako bitalde gipuzkoarrik onenariokoa aurrez aurre.

Inork gutxi usteko ordea osagai hauekin 40 minutuetan sukaldatutako platera hain bitxia eta gustagarria irtengo zenik, bigarren zati hasieran etxeok 0-5 galtzen ipiniko zirenik eta ondoren partida 5-5 amaituko zenik.

Neurketak bi zati oso desberdin izan zituen: 0-5-era arte lehendabizikoa, buruarekin jokatuko zutena, eta 0-5-tik 5-5-erako bigarren-go, buruarekin baino bihotzarekin jokatutakoa.

### Partidaren bi zatiak

Partidaren zati batean bi taldeek buruarekin jokatuko zuten, arriskuak ongi neurtuaz. Astigeragako 2-2 presinak horitxoei arazoak sortu zituzten. Etxekoek presina atzerago espero zuten eta ustekabea, estreinakoz demboraldi honetan, baloi jabetzarik

gabe aurkitu ziren. Honela, atsedendaldira 0-1 iritsi ziren. Bigarren zatian hasieran huts egite mordo bat pilatu zituzten eta Gipuzsalakoek 0-5 aurreratzeko lortu zuten.

Baina neurketari beste alderdi bat gertatzen zitzaion jolasteko oraindik; amaiera bitarteko 15 minutu zirrargarri. 0-5eko unerik kritikoen fase aldaketa eragin zuena Telleria izan zen, kasta eta teknika depuratua uzartuaz berak sartu baitzituen etxeokoen lehendabiziko bi golak.

Hirugarren gola kasta eta teknika depuratua ere zertxobait badakien Barriolak egin zuen eta laugarrena eta bosgarrena Telletxeak.

### 7. sailkapen nagusian

Aho zapore ezitiko puntu banaketa honek laskoraindarrak zazpigarren uzten ditu sailkapenean, lidera zazpi puntutara dagoelarik eta bigarren goa hirura. Nola hala, txapelketa hasi besterik ez denean egin, 22 jardunaldi falta direnean, kontu hauek ez dute esanahi handiegirik.

### Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri haremanetan gurekin

- KONTABILITATEA
- ZERGA
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

**Jarduna**  
 administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea  
 ANDOAIN  
 943-30 40 30  
 administrazioa@jarduna.net



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kultur Astea

■ **Aduna.** 20:00etan *Grezia zaharreko istorioak* ipuin irakurketa Kultur Aretoan, musikaren laguntzarekin, Juan Kruz eta Oihane Igerabideren eskutik, helduentzat.  
■ **Ibarra.** Saharari buruzko hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean.

### Deialdiak

■ **Anoeta.** Alkartasuna Biltokiak jubilatuen meza 12:30ean eta bazkaria antolatu du Alkartasuna biltokiak hilaren 27an Zuloaga txiki jatetxean, elkartearen XVI. urtemugan eta Milagrosa delako. Izen-ematea, elkartean 22 eurotan (bazkide ez direnek, 25 eurotan).  
■ **Tolosa.** Babarrun Astearen baitan, urtero bezala, herri bazkaria izango da hilaren 23an, igandean, Zerkausian, Gure Kaiola elkarteak antolatuta. Bazkarirako txartelak elkartean bertan erosi daitezke jada, 22 eurotan, 19:30etik 21:00etara.  
■ **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatu duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).  
■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite Amonarriz kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65040.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Sabela mugituz ikuskizun paregabea

**TOLOSA** ● The Bellydance Superstar sabel dantzako konpainia handienak *Babelesque* emanaldia eskaini zuen pasa den pasa den larunbatean Leidorren. Taldeak hainbat bira egin ditu mundu osoan zehar, eta gurean Tolosa Munduan zikloaren baitan izan zen. Emanaldi izugarri honekin

beste behin ere publikoak txundituta uztea lortu zuten taldekideek eta publiko urrutiko leku eta garaietara eramatea lortu zuten honekin. Superstar-en helburuetako bat da sabel dantzaren estatusa igotzea, dantzako genero ezberdinen artean. NEKA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

## Sarrera para

zozketan, deitu eta eskuratu!



**BRUESA GBC**  
CAI Zaragoza  
**IGANDEA**

AZAROAK **23-12:30**  
ILLUNBE



## Sarrera para

zozketan,  
deitu eta eskuratu!

**BABARRUN**  
**JATEA**

Azaroak 23  
Gure-Kaiola elkartearen

